



NAZIOARTEKO XXX. EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA 2012KO ABENDUAREN 29AN

NAZIOARTEKO XXX. EGUBERRI TXAPELKETA - FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

2012ko abenduaren 29an (larunbata), igeriketako Nazioarteko Eguberriko XXX. Ekitaldia jokatu da. Aurtengo proba Paco Yoldi Donostiako igerilekuetan jokatu da. 50 metroko eta 8 kaleko igerilekua da eta 400 ikusleko edukiera du. Goizean kanporaketak jokatu dira eta azkeneko serieak arratsaldean.

- Goizeko jardunaldia – Kanporaketak – 09.30ean hasiko dira eta egutegi olinpikoko 20 probetako kanporaketa serieak egingo dira, igeriketakoak alegia. Beste urteetan bezala, egokitutako igerilarientzat gordetako bi proba egongo dira. Proba ordena hau da.

1.-	100m	Tximeleta	6.-	100m	Bizkar
2.-	50m	Bizkar	7.-	50m	Bular
3.-	100m	Bular	8.-	100m	Libreak
4.-	50m	Libreak	9.-	200m	Estiloak
5.-	50m	Tximeleta	10.-	50m	Libre nat ad.

- Arratsaleko jardunaldia – Finalak – 18.15etan hasiko da eta EITBK emango du zuzenean. Oraingo honetan, finalak, goizean sailkatutako igerilariekin egingo dira serieak. Finaletarako sailkatuen artean, Torneoko sariak erabakiko dira, 2012ko taula FINA deituriko puntuaketan oinarrituta.

- Txapelketako irabazleek, (1.go, 2.go, eta 3.go emakumezko nahiz gizezkoetan), Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputazio trofeoa, diru-saria eta urrezko, zilarrezko eta brontzezko domina jasoko dute, sailakpenaren arabera.
- Era berean, FINA taulan puntu gehien lortutako emakumezko eta gizezkoak Donostia Hiria Saria jasoko du.
- Diru Sariak:

1.go sailkatua	1500.- euro
2.go sailkatua	1000.- euro
3.go sailkatua	500.- euro





NAZIOARTEKO XXX. EGUBERRI TXAPELKETA FORU ALDUNDIA SARI NAGUSIA

DONOSTIA 2012KO ABENDUAREN 29AN

Emakumezkoetan, berriz, hauexek:
Marina García, Melani Costa, Ane Saseta.

30 URTEKO TXAPELKETA MEMORIA

Hogeita hamar urteotan zehar jokaturako edizio hauetan, munduko igerilaririk onenak lehian izateko aukera izan dugu Gipuzkoan. Horieta askorekin erlazio estua mantetzen dugu, interes handiko lehiaketa delako eta sari interesgarriak dituelako. Gainera, LEN (Liga Europea de Natación) ligan sartuta dago.

Erakundeei dei egiten diegu Nazioarteko Torneo honi babes eman diezaioten, izan ere, orain dela 30 urte abiatu zen eta bi urte egin ditu aurrera egiteko bidean antolatzaileei esker.

Krisi garaia dela eta, zaila izan da txapelketa antolatzea, alde ekonomikoari dagokionez eta baita egituraketari dagokionez..

Uste dugu, Donostian maila hontako txapelketa bat antolatzeak garrantzi handia duela, Bartzelonarekin batera hau baita LEN ligan sartuta baitago.

Urteetan zehar Ordiziako eta Donostiako igerilekuetatik igerilari olinpiko asko pasatu dira, hala nola, Nina Zhivaneskaya, Martín López Zubero edota Tom Dolan, 200 eta 400 estiloetan munduko errekorra. Hauetako esker, igerilari gipuzkoarrek haien kiroleko idoloekin igeri egiteko aukera izan dute.

Txapelketak lortu duen izena ukazina da, entrenatzaile eta igerilarietako haien egutegian eguna markatzen baitute.

Donostiak, 2016ko Europako kultu hiruburua, kirol ekintza honen XXX. Edizioa merezi du.

